

EPEC-RS:
EPEC (Euskararen Prozesamendurako Erreferentzia Corpusa)
rol semantikoekin etiketatzeko eskuliburua

Aldezabal I.; Aranzabe, M.J.; Díaz de Ilarraza, A.; Estarrona, A.; Fernández, K.; Uria, L.

UPV/EHU / LSI / TR 02-2010

Laburpena

Ixa taldearen helburuetako bat da taldean erreferentziatzen dugun *Euskararen Prozesamendurako Erreferentzia Corpora* (EPEC) hainbat hizkuntza-mailatan eskuz etiketatzea, horrela, gero, tresna eta baliabide konputazionalak ebaluatu ahal izateko eta ikasketa automatikoa garatzeko.

Eskuliburu honetan EPEC corpora rol semantiko mailan etiketatzeko gidalerroak aurkezten ditugu. Nagusiki PropBank-en erabilitako eredua (Kingsbury & Palmer, 2002; Palmer *et al.*, 2005) jarraitu dugu.

Beti gertatzen den moduan, eskuliburu hau etengabe eguneratzen joango gara etiketatzea aurrera joan ahala. Horrek esan nahi du hemen jasotzen diren erabakiak argitaratze-data artekoak direla.

Abstract

One of the goals of the IXA research group is the manual annotation of the EPEC corpus (*the Reference Corpus for the Processing of Basque*) at different linguistic levels. This way, it will be possible to evaluate the developed computational tools and resources as well as to carry out machine learning.

In this internal report, we present the criteria fixed to annotate the EPEC corpus at the semantic role level. We have mainly based on the model used in PropBank (Kingsbury & Palmer, 2002; Palmer *et al.*, 2005).

As usual, the report will be continuously updated as we carry on the annotation process. This means that we here present the decisions we have made so far.

Donostian, 2010eko urtarrilaren 18an

AURKIBIDEA:

1. Sarrera	4
2. Helburua	4
3. Abiapuntua	5
4. Wikia eta etiketatze-kopuruak	5
5. Aldez aurretiko baliabideak eta erabakiak.....	6
6. Metodologia	15
7. Irizpideak.....	16
8. Interfazeari begira nahi genituzkeen hobekuntzak	25
Erreferentziak	27
A ERANSKINA: PropBank-eko gidalerroak.....	29
B ERASKINA: EADBko aditzak beren balio sintaktiko/semantikoekin.	62
C ERANSKINA: Landutako aditzentzat aukeratutako “ordain berriak”.....	80

1. Sarrera

Ixa taldearen helburuetako bat da taldean erreferentziatzen dugun EPEC corpusa (Aduriz *et al.*, 2006) hainbat hizkuntza-mailatan eskuz etiketatzea, horrela, gero, tresna eta baliabide konputazionalak ebaluatu ahal izateko eta ikasketa automatikoa garatzeko.

Bai eskuzko etiketatzerako bai baliabide konputazionalak egiteko, oinarri eta irizpide linguistikoak -maila bakoitzari dagozkionak- behar dira, eta eskuliburu honetan rol semantiko mailari dagozkionak aurkezten ditugu. Oraindaino, corpus osoa, eskuz, modu orokorrean hiru mailatan orraztu/etiketatu dugu: segmentazio mailan (Aldezabal *et al.*, 2007a); sintaxi mailan, dependentzien eredu jarraituz (Aldezabal *et al.*, 2007b.); eta semantika mailan, Euskal Wordneteko adierak jarraituz eta soilik izen kategoriakoei gagozkiela (Agirre *et al.*, 2005). Maila apalago batean eta oraindik ere hastapenetan, bidean dira anaforaren (Ceberio *et al.*, 2008) eta diskurtso markatzaileen (Iruskieta *et al.*, 2008) etiketatzea ere.

Maila guztietan bezala, arazo handienetako bat da zein eredu jarraitu erabakitzea, rol semantikoak eredutik eredura aldatu egiten baitira. Guk hemen ProBank-en erabilitako eredu jarraituko dugu (Palmer *et al.*, 2005), alde batetik, abiapuntutzat sintaktikoki etiketatutako corpusa dutelako eta bestetik masiboki, ingelesez gain, beste hizkuntza batzuetarako ere erabili delako (Martí *et al.*, 2007).

Horretaz gain, Ixa taldean bertan egindako azterketa batean proposatutako 100 aditzen lexikoa erabili da (Aldezabal, 2004), informazio osagarri eta konparagarri gisa.

2. Helburua

Helburua da EPEC corpusa rol tematikoekin etiketatzeko gidalerro nagusiak ematea, argi eta garbi utziz zeintzuk diren abiapuntuak, alde aurretiko baliabideak, metodologia eta etiketatzeko oinarri eta irizpideak, bai orokorrak, bai zehatzagoak. Lanean zehar, etiketatzeko tresna ere aipatuko dugu, oso laburki bada ere; izan ere, etiketatze sintaktikorako erabilitako Abarhitz bera (Díaz de Ilarraza *et al.*, 2004) baita. Azken atal gisa, interfazeari begira nahi genituzkeen hobekuntzak zerrendatu ditugu.

3. Abiapuntua

Abiapuntua dependentzia mailan etiketatutako corpora da. Hots, rolei dagokien informazioa dependentziekin etiketatuta datozen elementuei erantsiko zaie.

Han egiten zen bezalaxe, etiketatzea aditzez aditz egingo da eta bakarrik aditzaren mende dauden osagai sintaktikoak etiketatuko dira, hauek baitira argumentu eta adjunturako hautagaiak. Horrek esan nahi du buru gisa aditzik ez duen elementurik ez dela etiketatuko. Azken batean, aditzari loturiko honako etiketadun elementuei jarriko zaie rolei buruzko informazioa *arg_info* etiketaren bitartez:

- a. nsubj
- b. nobj
- c. ncobj
- d. nmod
- e. npred
- f. ccomp_obj
- g. ccomp_subj
- h. cmod
- i. xcomp_obj
- j. xcomp_subj
- k. xcomp_zobj
- l. xmod
- m. xpred

Adibidea: Artzain joango nintzateke Urbiara.

npred (abs, joango, artzain, artzain)
arg_info (go_01, joango, artzain, argM, MNR, - , -)
nmod (ala, joango, Urbiara, Urbiara)
arg_info (go_01, joango, Urbiara, arg4, Destination, helburuko kokapena, -)

Guztira etiketatu beharreko aditzak dependentzietan zerrendatutako berberak dira (C eranskina).

4. Wikia eta etiketatze-kopuruak

Rolei buruzko informazioa trukatzeko eta biltegiratzeko wiki bat sortu da: <http://ixa2.si.ehu.es>. Wikia izanik, izaera aldakorra du eta bertan zintzilikatzen diren zenbait dokumentu etengabe eguneratzen doaz; eskuliburu hauxe bera, esaterako.

Bestetik, etiketatu ahala kopuruak unean-unean ikus daitezke honako helbidean: <http://ixa2.si.ehu.es/abarhitz/rolak.php>

5. Aldez aurretiko baliabideak eta erabakiak

Atal honetan zerrendatuko ditugu, eta nahiko azaletik azaldu, lanari ekiteko eskuartean ditugun baliabideak eta erabakiak.

Esan dugun bezala, gauzarik zailenetakoa eredu bat aurkeratzea da, baina behin ereduak aukeratuta ahalik eta ongien ulertu behar da. Horretan saiatuko gara atal honetan. Esan behar da, hala ere, aukeratutako ereduaren irizpideak ez daudela guztiz argi azalduak eta zenbaitetan zail egiten dela aditzen arteko desberdintasunak ulertzea. 5.1. ataletan zehazki, aukeratutako ingelesezko ereduak aipatzen ditugu eta beroiei buruzko zertzelada batzuk ematen ditugu, eranskinetan jarriz bere horretan egileek egindako gidalerroen dokumentua.

Gainontzeko baliabide eta erabakiak guk geuk sortuak dira eta hobeto ulertzen direlakoan gaude.

5.1 Propbank/Verbnet

5.1.1 PropBank

PropBank-en web-orria honakoa da: (<http://verbs.colorado.edu/~mpalmer/projects/ace.html>):

Paul Kingsbury eta Martha Palmer jo ohi dira PropBank proiektuaren aintzindari (Kingsbury & Palmer, 2002; Palmer *et al.*, 2005))

Proiektuaren nondik norakoak:

- Ingelesko corpus bat semantikoki etiketatzeko proiektua da.
- Oinarrian *Penn Treebank*eko zuhaitz sintaktikoak ditu.
- Aditz-adiera bakoitzari rol-zerrenda bat egokitzen diote.
- Hipotesia:
 - Aditz-forma baten adiera ezberdinak, izaera sintaktikoak eraginda sor daitezke:
 - Adibidez:
 - Ni etxera itzuli naiz
 - *itzuli*: <agente, helmuga>
 - Nik testua euskarara itzuli dut.
 - *itzuli*: <agente, tema, helburuko egoera >

PropBank-eko rolak oso espezifikoak dira, aditz banakoari lotuak esango genuke (Adib.: *buyer*, *thing bought*, *speaker*...); horregatik ez dago rolen zerrenda estandar bat. Beharren arabera erabiltzen doaz. Hauxe da euren filosofia:

- Corpus bat etiketatzeko erabilgarriak diren rolak sortu dituzte.
- Aditz baten rolen kasuistika corpusean oinarrituta dago.

Hala ere, PropBank-en bertan Verbnet-eko rolak ere erabiltzen dira (beheraxeago aztertuko dugu) eta hauek orokorrak dira.

- Etiketatzeari: 2 maila bereizten dituzte:
 - Argumentu zenbakituak (0tik 4ra: Arg0, Arg1, ..., Arg4) eta adjuntuak (adjuntuek ez dute zenbakirik; besterik gabe Modifikatzailearen M-a (ArgM))
 - Rol tematikoak

Hots:

- Argumentu batek rol tematiko desberdinak har ditzake (adib., aditz batean Arg1 *theme* izango da, eta bestean *topic*; edota Arg0 *agent* edo *theme*).
 - Rol tematiko bat argumentu desberdinetan ager daiteke (modu berean, *theme* Arg1 izango da batean eta Arg0 bestean).
- Egitura sintaktikoekin parekatuz gero:

- Aditz iragankorrak: **Peiok liburua** ekarri du

Arg0 = SUBJ

Arg1 = OBJ

- Aditz iragangaitzak: **Leihoa** puskatu da

Arg1 = SUBJ

- Aditz inergatiboak: **Peiok** ondo abestu du

Arg0 = SUBJ

- Adibide bat: *to buy*:

John bought his mother **a dozen roses**

Arg0: John

REL: bought

Arg2: his mother

Arg1: a dozen roses

- Aditz-sarrerak eta esaldi etiketatuak: honako helbideak ikus daitezke
 - <http://verbs.colorado.edu/framesets/>

- Horretaz gain, PropBank-en aditz-adiera bakoitzak bere gauzapean sintaktiko desberdinak ditu (*frameak* deitzen dituzte; azken batean, alternantziak). Adibidez: *tell.01*-en rolset-a eta honi lotutako frame-ak honakoak dira:

rolset *tell.01*:

Arg 0 *speaker*

Arg 1 *utterance*

Arg 2 *hearer*

tell.01

ditransitive (-)

The score tell you what the characters are thinking and feeling.

Arg0: The score

REL: tell

Arg2: you

Arg1: what the characters are thinking and feeling

odd ditransitive (-)¹

prepositional arg2 (-)

fronted (-)

PropBank estiloen etiketatzeko xehetasun gehiago A eranskinean daude (“PropBank-eko gidalerroak”). Eranskin hau sareko “PBguidelines.pdf”etik aterea da.

5.1.2. Verbnet

Verbnet-en web-orria honakoa da: <http://verbs.colorado.edu/~mpalmer/projects/verbnet.html>

Verbnet berez lexikoi bat da, ez corpus bat, eta Levin-en (1993) aditz-sailkapenean dago oinarrituta; horrela izanda, aditz bakoitzari Levin-en klase semantikoetako bat esleitzen zaio (9.1, 9.2, 10.1...). Hala ere, esan behar da oraindik ere sailkapen xehakatuago bat egiten dutela zenbait kasutan. Adib., 37.1 klasean bi azpisail egiten dituzte: 37.1.1 / 37.1.2. Beraz, oinarrian Levin (1993) dute, baina beren moldaketak ere egin dituzte. Horretaz gain, hautapen-murriztapenak ere ageri dira zenbaitetan: $\pm animate$, $\pm organization$, $\pm communication$, $\pm concrete$, $\pm location$, $\pm region$, $\pm animal$...

Esan dugun bezala, erabiltzen dituzten rolak orokorragoak dira (Adib.: *agent*, *theme*, *beneficiary*, *topic*, *patient*...) eta klaseak biltzeko pentsatuak dira oro har (Levin-en klaseak oinarrian bederen).

Guk gure lanean, hain zuzen, Verbnet1.0 lexikoiko rolak erabiliko ditugu, eta rol horiek PropBank-eko aditz adierei lotuta ulertuko ditugu (aditz-adiera deitzen diogu PropBank-eko sarreretan agertzen diren 01, 02, 03... horiei).

Verbnet-eko xehetasun gehiagotarako jo bedi web-orrira.

5.1.3. Propbank-Verbnet datu-basea

Direktorio honetan (cd /sx09a1/jirhizts/Corpus/Propbank/data/frames) daude, PropBank eta Verbnet-eko datu-baseak lotu ondoren, datu-base hauetan ageri diren aditzen zerrendak, dagokien informazioarekin (rolset-zenbakia edo aditz-adiera, argumentuak, rolak...).

¹ Hemen frame edo alternantzia bakarria dago azalduta (ditransitive(-)).

5.2 Euskal Aditzen Datu Basea (EADB)

EADBren diseinu eta edukia Aldezabalen (2004) tesian azaltzen da sakonki. Hemen etiketatze-lan hau egiteko beharrezkoa iruditu zaiguna azalduko dugu.

Aldezabalek bere lana Levin-en (1993) eta Vázquez *et al.*-en (2000) teoria eta irizpideak kontuan hartuz egina du oro har, eta horretaz gain, corpuseko adibideak aztergai izanda. Levin-en teoria egokituz eta Vázquez *et al.*-en lanaren eskarmentua baliatuz, euskal aditzak lantzeko proposamen bat egiten da.

Proposamen horren oinarriak laburki hauek dira:

Aditz baten rol semantikoek aditzaren “esanahia” bereizten dute, esanahi hau predikatu-mota orokor gisa ulertu behar delarik; hots, aditzak sail orokorragoetan sailkatzeko bidea emango duten predikatu orokor gisa. Beraz, esanahia ez da hiztegietan agertzen den modu xehean ulertu behar, baizik eta balio kognitibo orokor moduan (mugimenduzko balio kognitiboa, egoera-aldaketazkoa, sortzezkoa...). Izan ere:

Aditz guztien erabilerak aztertzerakoan (eta ez aditz bakarrarenak edota erabilera bakarra hainbat aditzetan) argi ageri da aditz bakoitzak egitura *usu* bat (egitura prototipiko bat) edo batzuk erakutsi ohi dituela, aditz guztietan errepikatzen diren *balio semantiko orokorren* bat adierazteko. Balio semantiko hauek ez dira adierak, hiztegietan agertzen diren modukoak, baizik eta kategoria kognitibo oinarritzkoak, predikatu-mota orokorrak, *sailak* osatzeko baliagarri izan daitezkeenak. (Aldezabal, 2008: 38).

Ikusten den bezala, egitura *usu bat* edo *batzuk* ager ditzake aditzak balio bera adierazteko. Hain zuzen, balio bera adierazten duten egitura sintaktiko desberdin guztiak, elkarren artean *alternantzia* dira. Aldiz, balio desberdina adierazten duten egiturek elkarren artean ez dituzte alternantziak osatzen, baizik eta delako aditzari dagozkion egitura sintaktiko desberdinak dira, besterik gabe. Alternantzia osatzen duten egituretako bakoitza *aldaera* izango da; hain zuzen, alternantzia baten aurrean gaudenean nahitaez bi aldaera jarri beharko ditugu harremanetan.

Balio kognitibo orokor bakoitza definitzeko beharrezkoak diren rolak erabiltzen ditu Aldezabalek eta ondoren, rol horiek modu koherente batean konbinatuta predikatu-mota orokorrak planteatzen ditu.

Hauexek dira rolak:

- gaia
- helburuko kokapena
- esperimantatzailea
- jarduera
- gai ukitua
- helburuko egoera
- kausa
- neurria
- gai sortua
- abiapuntuko kokapena
- iturria
- modua
- egoera
- bidea
- edukitzailea
- kokapena
- abiapuntua
- edukia
- denbora
- helburua
- ezaugarria

Eta hauexek predikatu-mota orokorrak:

Entitate baten egoera-aldaketa
Entitate baten kokapen-aldaketa
Entitate baten aldaketa
Entitate baten sortzea
Entitate baten jarduera
Entitate baten elkarraldatzea
Entitate bat edukitzea
Entitate bati ezaugarria esleitzea
Entitate baten izatea, existitzea
Entitate baten kokapena
Entitate baten egoera
Entitate baten deskribapena
Ustezko adierazpena

Hala, predikatu-motetan hauexek dira rol-konbinazioen aukerak; beste modu batera esanda, predikatu-mota bakoitzean atera diren patroi semantikoak (betiere aztertutako aditzekin). Maiztasun handienekoak grisez nabarmenduta ageri dira:

Egoera-aldaketa:

kausa+gai ukitua (*hil*)
kausa+gai ukitua+gai ukitua (*banandu*)
gai ukitua (*irakin*)
kausa+gai ukitua+helburuko (*egokitu*)

Kokapen-aldaketa:

kausa+gai ukitua+abiapuntuko kokapena / bidea+helburuko kokapena (*ekarri*)
gai ukitua+abiapuntuko kokapena / bidea+helburuko kokapena (*joan*)
kausa+gai ukitua+helburuko kokapena (*jarri*)
gai ukitua+helburuko kokapena (*bisitatu*)
kausa+gai ukitua+abiapuntuko kokapena (*hartu*)

Aldaketa:

Kausa+gai ukitua+abiapuntua/bidea+helburua (*aldatu*)

Entitate baten sortzea:

iturria+gai sortua (*isuri*)
iturria+gai sortua+kokapena (*eragin*)

Entitate baten jarduera:

esperimentatzailea+gaia (*abestu*)
esperimentatzailea+esperimentatzailea (*besarkatu*)
esperimentatzailea+jarduera (*aritu*)
esperimentatzailea+modua (*jokatu*)
esperimentatzailea+jarduera+denbora (*eman*)

esperimentatzailea+jarduera+helburua (*deitu*)

esperimentatzailea+gaia+gaia (*aldatu*)

Entitate baten elkarraldatzea:

abiapuntua+gaia+helburua (*eman*)

Entitate bati ezaugarria esleitzea:

abiapuntua+ezaugarria+helburua (*esan*)

Entitate bat edukitzea:

edukitzailea+edukia (*izan*)

edukitzailea+edukia+kokapena (*ekarri*)

Entitate baten izatea, existitzea:

gaia (*existitu*)

Entitate baten kokapena:

gaia+kokapena (*egon*)

Entitate baten egoera:

gaia+egoera (*egon*)

Entitate baten deskribapena:

gaia+ezaugarria (*izan*)

Ustezko adierazpena:

gaia (*eman*)

Ikusten dugunez, predikatu-mota bakoitza hainbat patroi semantikoz gauza daiteke, baina delako predikatu-motakoa izateko delako gutxieneko osagai semantiko bat(zuk) izan behar ditu(zte):

- Egoera-aldaketetan *gai ukitua* izatea da nahitaezkoa:

Adib.: *hautsi, hazi, hil, isildu, kezkatu, haserretu, egokitu, aldatu, pasatu, igo, jaitsi...*

- Triste al hago [HURA] **hil** zelako?- galdetzen dio Juttak. (EusCor)

- Kokapen-aldaketetan, *gai ukitua* eta *osagai lokatiboren bat*:

Adib.: *kokatu, zintzilikatu, sartu, iritsi, ekarri, eraman, etorri, joan, jarri...*

- Non jarri da argazkilaria, gozotegiaren barruan ala kanpoan? (EusCor)

- Sortzezkoetan, *gai sortua* eta *iturria*²:

Adib.: *egin, etorri, ekarri, atera, jarri...*

- Horregatik hilekoa duen emakumeari maionesak ez zaizkio **ateratzen**. (EusCor)

- Edukitzeetan, *edukitzailea* eta *edukia*:

Adib.: *izan, ekarri, etorri, jaso, eraman, hartu...*

- Problema gutxiago izan zuen zentsura frankistak. (EusCor)

² Hemen salbuespena da *loratu* aditza; sortzekoa izanik ez duelako *iturria* behar.

- Bigarren liburu honetan badatoz, gainera, aurrekoaren zuzenketak. (EusCor)

- Eta jardueretan, azkenik, *esperimentatzailea* eta, normalean, beste osagaien bat:

Adib: *erabili, abestu, afaldu, ehizatu, grabatu, jan, ikusi, asmatu, oroitu, ahaztu...*

- Eskolan **bazkaltzen** du [HARK] eta gehien gustatzen zaion janaria saltxitxak dira. (EusCor)

Hala izanik, *entitate baten aldaketa*, entitate baten *egoera- edo kokapen-aldaketa* ere bada (*gai ukitu* bat dagoelako). Gertatzen dena da *aldaketatzat* jo dugun predikatu motan aditzak ez duela berez egoera edo kokapenaren informazioa kodetuta; informazio hori sintagmek hartzen duten izenaren baitan dago. Adib.:

- Karga negatibo, edo elektroiak, gorputz batetik bestera aldatzen direnean korrante elektrikoa sortzen dela esaten dugu. (EusCor)

gorputza: leku fisikoa -> kokapen aldaketa

- Izan ere, autonomi edo probintzia-mailara aldatu nahi baditugu, zatikaturiko inkestak ez dira lehen bezain adierazgarriak. (EusCor)

probintzia maila: ezaugarria -> egoera-aldaketa

Aditzek batzuetan adiera bakarra adierazten dute, eta horri loturiko alternantziak izan ditzakete; beste batzuek ez dute alternantziarik. Ondorioz, aditz batek adiera bakarra duenean, mota semantiko horretakotzat jotzen da (adib. *jan: jarduerazko* aditza). Ordea, aditz batzuek adiera bat baino gehiago adieraz dezakete, eta horiei loturiko alternantziak ere izan ditzakete. Horrelakoetan sortzen dira guztiak elkarren artean bereizteko zailtasunak (eta beharrak,aldi berean); eta aditz batzuk mota semantiko batekotzat jotzen badira ere (adib. *eman: elkarraldatzezko* aditza; *ekarri: kokapen-aldaketazkoa*), bestelako predikatu motetan ere parte hartzen dute (adib. *eman: jarduerazko* predikatu motan; *ekarri: sortzezko* eta *edutezko* predikatu motan). Horregatik da bidezkoagoa *predikatu-motez* hitz egitea aditz-motez hitz egitea baino.

EADBren xehetasunak B eranskinean daude. Landutako 100 aditzen azterketa ikusi nahi izanez gero, jo bedi Aldezabalen tesi-laneko (2004) C eranskinera. Wikian ere zintzilikatuta dago.

5.3 Levinen aditz guztiak beren euskal ordainekin

1998an, Marylan-eko Unibertsitateko egonaldian, Aldezabalek Levin-en liburuko aditz guztiei euskal ordainak jarri zizkien, horretarako jokaera sintaktikoari emanez garrantzia. Hots, ez zen itzulpen hutsa egin, baizik klase horretarako egitura sintaktiko antzekoen zuen/zuten aditzen ordainak hautatu ziren. Aditz-zerrenda eta ordainak ikusi nahi izanez gero, Rolen wikian daude (<http://ixa2.si.ehu.es/rolak/index.php/Trudi:C> ingelesezko aditza_Levin-klasea_euskarazko aditzak.doc).

5.4 Aditz baliokidetza horiek PropBankekin gurutzatuta eta corpusarekin lotuta

Levin-en aditzen itzulpen guztiak hartu eta itzulpen horietatik EPECen ageri diren aditzetara lotu dira. Jakina, lotura horretan PropBank-ekin egindako ebakidura hartu da kontuan. Hots: Levin-klasearen arabera mapatze egoki bat izan duten aditzen PropBank-informazioa (esaterako, *esani* tell 37.1.1 / 37.2 eta say 37.7ren PropBank-informazioa esleitu zaio).

Aldi berean, mapatze horren ondorioz agertu diren Vebnet-rol guztien zerrenda atera da. Honekin, aurrerantzean etiketatzeko baliatuko diren rolen zerrenda nahiko osoa lortu da.

PropBank-ekin egindako mapatze horretan honako kasuistika agertu zaigu:

EQUAL: Aldezabalen itzulpenen zerrendako aditzak PropBank-eko datuetan zegoen Levin-klase bera du. Aukera hau kasuen % 51n gertatzen da.

SUBCLASS: Aldezabalen itzulpenen zerrendako aditzak klase orokorrago bat du PropBank-eko datuekin alderatuta: PropBank-en azpiklase bat ageri da (adibidez, itzulpenean: esan 37.1, eta PropBank-en 37.1.1). (% 6)

CHANGED: Klase bakarra badago PropBank-ekin bat ez datorrena eta mapaketan eta PropBank-en klase-kopurua berdina bada, orduan mapaketako klasea PropBank-en dagoenarekin ordeztu dugu. (% 2)

MISSING: Aditza ez dago PropBank-en edo ez dauka Levin-klaserik. (% 41)

Kasuistika honen aurrean, guk printzipioz *equal* eta *subclass* motakoak baliatu ditugu EPECekin lotura egiteko; bestek errebisatzeko geratzen dira mementoz.

EADB eta corpusen agertzen diren aditzen arteko konparaketa eta maiztasunei buruzko datu batzuk Wikiko dokumentu honetan ikus daitezke: <http://ixa2.si.ehu.es/rolak/index.php/Irudi:EADBvsEPEC.xsl>

5.5 Aditzaren mende dagoen dependentzia orori jarriko zaion etiketa: *arg_info*

Corpusen rolei buruzko informazioa txertatzeko, “arg_info” etiketa erabiliko da, eta etiketa honek dituen eremuak honako bostak dira::

- **VNrs** (“Verbnet-PropBank rolset zenbakia”): PropBank/Verbnet-eko rolset zenbakiarentzako eremua. Gehienetan aditz bat baino gehiago dagoenez PropBank-ekiko ebakiduran, aditza ere zehaztea erabaki da. Adib.: tell_01/say_01, 02, 03, 04, 05, 06, 07...
- **BAL** (balentzia): argumentu edo adjuntuentzako eremua. Balioak ondokoak dira: arg0, arg1, arg2, arg3, arg4, argmod.
- **VNrol** (“Verbnet rola”): Verbnet-i dagokion rola. Balioak, printzipioz, izango liriteke 5.4 atalean aipatu dugun rolen zerrendan agertzen direnak.
- **EADBrol** (“Euskal Aditzen Datu Baseko rola”): EADBko rola ezartzeko eremua. Balioak ondorengo 21 rolak dira: *gaia, gai ukitua, gai sortua, egoera, kokapena, denbora, helburuko kokapena, helburuko egoera, abiapuntuko kokapena, bidea, abiapuntua, helburua, esperimantatzailea, kausa, iturria, edukitzailea, edukia, ezaugarria, jarduera, neurria, modua*.
- **HM** (“Hautapen-murritzapenak”): Hautapen-murritzapenak jartzeko eremua. Balioak, printzipioz, ondorengoak dira: [+biz], [-biz], [+konkr], [-konkr], [+giz], [-giz].

Nahiz eta rolen etiketatzearen oinarria sintaktikoki etiketatutako corpusa izan, *arg_info* etiketa independenteki erabili ahal izatea nahi dugu. Horregatik, aipatutako 5 eremuez gain, beste bi eremu gehiago zehaztuko dira etiketan: lantzen ari garen aditza (burua, alegia) eta aztertzen ari garen argumentu/adjuntua, bigarren eta hirugarren eremu izango direnak hurrenez hurren. Hala ere, bi balio hauek automatikoki kopiatuko dira etiketatze sintaktikotik, lan errepikakorra ekidinez. Horrela, halaxe geratuko zaigu *arg_ifo* etiketa::

arg_info: (VNrs, aditza, hitz aztergaia, BAL, VNrol, EADBrol, HM)

Adibide hipotetiko batez:

arg_info: (tell_01/say_01, esan, nik, Arg0, agent, esperimentatzailea, [+giz])

Esan bezala, etiketa hau 3. atalean adierazitako dependentzia-etiketa bakoitzaren ondoren erantsiko da.

Adib.: Hau esanik, gartzelak, bi modutan sailaktuko genituzke.

ncobj (abs, esanik[w305], Hau[w304], Hau[w304], obj)
arg_info (tell_01/say_01, esanik[w305], Hau[w304], arg1, topic, gaia, -konkr)

xmod (mod, sailkatuko[w311], esanik[w305], esanik[w305])
arg_info (classify_01, sailkatuko[w311], esanik[w305], argM, MNR, modua, -)

ncobj (abs, sailkatuko[w311], gartzelak[w307], gartzelak[w307], obj)
arg_info (classify_01, sailkatuko[w311], gartzelak[w307], arg1, Theme, gai, -biz)

detmod (-, modutan[w310], bi[w309])
ncmod (ine, sailkatuko[w311], modutan[w310], modutan[w310])
arg_info (classify_01, sailkatuko[w311], modutan[w310], argM, MNR, modua, -)

auxmod (-, sailkatuko[w311], genituzke[w312])

5.6 EADBn landuta dauden 100 aditzen lotura automatikoa kasu/rol mailan

EADBko 100 aditzak hartuko dira eta aditz bakoitzaren mende dauden osagaiak EADBn definitutako rolak esleituko zaizkie automatikoki. Horretarako osagai bakoitzak sintaktikoki gauzatzeko baliatzen duen postposizio-atzizkia hartuko da oinarritzat.

Horrela, aditz jakin batean postposizio-atzizkiak edo bere mendeko osagaiak anbiguoak ez direnean, postposizio-atzizki edo osagai horiei dagozkien ezaugarri semantikoak automatikoki esleituko zaizkie. Ondorioz, aditz horren osagaiak automatikoki etiketatuko eta desanbiguatuko dira.

Esaterako, ondoko adibideko “ez” osagaiari analisi bakarra esleituko zaio:

Adib.: Hau guztia osatu gabe geratuko litzateke (...) aldaketekin joango ez balitz.

(...)
ncmod (neg, joango[w2839], ez[w2840], ez[w2840]
arg_info (VNrs, joango[w2839], ez[w2840], argM, NEG, -, -)
(...)

Gainerakoak eskuz desanbiguatu beharko dira. Halakoetan, anbigua den rol bakoitzeko etiketatze-lerro bat sortuko da, eta beste eremuak eskuz osatu edo etiketatuko dira.

Esaterako, ondoko adibideko “andereñoa” hitzaren postposizio-atzizkiak anbiguitasuna sortzen duenez, postposizio-atzizki horri dagozkion ezaugarri semantiko desberdinak sortuko dira:

Adib.: Mitchell andereñoa Perth-era joan zenean, (...)

(...)
ncsubj (abs, joan[w1915], andereñoa[w1917], andereñoa[w1917], subj)

arg_info (VNrs, joan[w1915], andereñoa[w1917], BAL, VNrol, gai_ukitua, -)
arg_info (VNrs, joan[w1915], andereñoa[w1917], BAL, VNrol, edukia, -biz/-konkr)
arg_info (VNrs, joan[w1915], andereñoa[w1917], BAL, VNrol, ezaugarria, -)

(...)

6. Metodologia

Etiketatzelaian hau 3 fasetan gauzatuko da:

1. fasea: proba-fasea

Hiru hizkuntzalarik aditz beraren esaldi berak (50) etiketatuko dituzte tresna probatzeko eta dudak argitzeko (adib. *esan*). Horrekin eskuliburua osatzen joango gara.

2. fasea: Corpuseko aditz guztien eskuzko etiketatzea

a) EADBko aditzetatik hasiko gara (100 aditz).

b) Bakoitzetik 60 agerpen etiketatuko dira.

Etiketatzailerik bakoitzak aditz beraren agerpen desberdinak etiketatuko ditu. Hots, 20 etiketatzailerik batek, 20 beste etiketatzailerik eta beste 20 hirugarren etiketatzailerik. Printzipioz, 10 EEBS corpusekoak eta beste 10 Egunkaria corpusekoak³.

Agerpen gutxiago egonez gero, dauden agerpen guztiak etiketatuko dira.

³ Oso komenigarria litzateke, bururatzen zaizkigun ondorioak apuntatzen joatea (adib. *Joan* aditzarekin 20 agerpen gutxi egingen dira (edo ez))

Hau eginda, gutxi gorabehera 3.200 esaldi etiketatua izango ditugu. Batez beste esaldiko 2 aditz daudela emanda, 1.600 esaldi desberdin izango dira.

Bi motako rolak etiketatzeak lan errepikakorra izateaz gain, alferrikako lana dela ere irudi dezake, baina hasteko 100 aditzekin baino ez da hori egingo. Horrela lagin hau baliatu ahal izango dugu ondorio orokorrak ateratzeko: ProBank-Verbnet-en hartutako erabakiak rol horiek (eta ez beste batzuk) erabiltzeko, adierei, argumentuei, adjuntuei eta abarrei buruzko iritzi desberdinak... Azken batean, ondorioak ateratzea izango dugu helburu eginkizun hau definitzerakoan adierazi bezala.

Lehen fase hau bukatutakoan eta esaldi bakoitza hamabost bat hitzez osatuta dagoela kontuan harturik, 24.000 hitz etiketatuta izango genituzke.

- c) Gainontzeko aditzekin hasiko gara. Hauetan ere 60 agerpen hartuko dira.
- d) Hori bukatutakoan, corpusetik aditz bakoitzeko lexikoa automatikoki erauziko da, ondorengo informazioa kontuan hartuta:

Patroi desberdin gutiak, bakoitza ezaugarritzen duten ondoko eremu hauek kontuan hartuta: aditza, WNrs, BAL, WNrol_(+KAS), HM.

Horrela, aditzak euren argumentu-ezaugarriekin erauziko dira eta ondorioz, PropBank/Verbnet-en egiten den modura, aditz bakoitzeko sarrera lexiko bat lortuko da, euskarako rol bakoitzari dagokion postposizio-atzikia ere adieraziko da eta horrenbestez posible diren egitura sintaktikoak ere bai.

3. fasea: Aditz guztien gainerako agerpen guztien etiketatze automatikoa eta eskuzko errebisio-lana

Aurreko fasetik ateratako lexikoekin, antzeko ezaugarriak dituzten corpuseko aditzak inferitzeko ahalegina egingo da. Egin dira halako lanak Ixa ikerketa-taldean; Aldezabal *et al.*-en (2001) postposizio-atzikien konbinaketan oinarrituta egin zen eta Zafirain *et al.*-en (2008) ingeleserako etiketatutako roletan oinarrituta. Horrela, aditz berri bakoitzeko postposizio-kasuen eta rolen proposamena egingo da.

Ondoren eskuz gainbegiratu da. Horrekin zenbatean asmatzen duen analisi automatikoak aztertuko da.

7. Irizpideak

Etiketatzeko-lana gauzatu ahala hartu diren erabakiak dira jarraian datozenak:

7.1. Irizpide orokorrak

- *arg_info* etiketako lehen eremurako **PropBank-eko baliokideak hautatzeko garaian**, tokatzen zaigun esaldian baliokide bat (edo batzuk) jarriko ditugu gauzak argi daudenean. Zalantzak sortzen zaizkigunean, ordea, ja gehiago begiratu eta aztertu beharko dugu.

Adibidez, *esan* tell_01 eta say_01 da argi eta garbi adiera batean. Aldiz, *joanen* kasuan, askotan go_01 da, baina testuinguruaren arabera, besteren bat egokiagoa izan daiteke (*joanek* baliokide asko baititu lotuta).

- Era berean, **lehenengo eremuan** klaseari dagokion zenbakiaz gain, aditza ere jarri behar da (adib. (go_01,...) (tell_01/say_01,...; eslaxa erabiliko dugu aditzak banatzeko, baina ez dugu zuriunerik utziko). Bi aditz jarri behar ditugunean aditz horiek PropBank-en ageri diren hurrenkeran adieraziko ditugu (end_01/finish_01) eta ez (finish_01/end_finish). Aditza *phrasal verb* bat baldin bada, azpimarra erabiliko dugu aditza etiketaren lehen eremuan idazterakoan, adibidez: *take_out_01, come_out_01...*

- **Zer egin PropBank ereduarekin bat ez gatozenez?**

Lehenik eta behin ezadostasuna ondo arrazoituta egon behar da, eta gero, eskuliburuan zehaztu behar da, horretarako, irizpideetan espresuki sorturiko azpiatalean (7.3. PropBank-ekiko ezadostasunak) jarriz.

- **Zer egin aditza EADBN dagoenean, baina ez guk nahi dugun balioa?**

Horrelakoetan, balio hori nola landu baldin badakigu, landu egingo dugu, horretarako rol edo/eta predikatu berriak sortu behar badira sortuz . Ez badakigu, “-“ marka erabili berari dagozkion eremu guztietan.

- **Zer egin aditza ez dagoenean EADBN?**

Horrelakoetan, baldin eta gai bagara EADBN jarraitzen den ereduaren arabera lantzeko, landu. Ez badakigu zer jarri “-“ marka erabili berari dagozkion eremu guztietan.

- **Zer egin aditz baten informazio osoa topatzen ez dugunean?**

Horrelako kasuetan, iturri desberdinetara jo beharko dugu informazio horren bila. Adibide batekin hobe ulertuko dugu prozesua zein izan daitekeen. *Dirua jokatzan dizut* adibidea agertu zaigu, kasu horretan “jokatu” “apustu egin”-en parekoa da; beraz, ingelesez “to bet” izango litzateke, baina ingelesezko aditz hori ez dugu “jokatu”-ren ordainen artean; beraz, Verb-Index (<http://verbs.colorado.edu/verb-index/index.php>) orrialdera joko dugu aditz horren argumentu-egituraren eta rolen bila. Kasu honetan, PropBank-ek argumentu-egitura ematen digu, baina hor ez ditugu VerbNet-eko rolak ikusten:

Roleset id: *bet.01* , *wager*, vncls: 54.5 94

Roles:

Arg0: *better*

Arg1: *amount of bet*

Arg2: *basis, proposition, bet-on*

Arg3: *co-better*

Beraz, hemen argumentuak ditugu, baina orain rolak falta zaizkigu. Verb-Index orrialdean ikusten dugu “bet” aditza beste aditz batzuekin parekatzen dela eta beraz aditz horien rol berberak izango dituela. Verb-Index-en “bet” aditzaren pareko agertzen dira “bill, rely, risk” eta hauen rolak ikusita “bill” horrenak gure “apustu egin” aditzarekin bat datozela ikusten dugu:

Agent: [+animate / + organization]
Asset: [+currency]
Recipient: [+animate / +organization]
Cause:

Beraz, azken pausu gisa egingo duguna goiko argumentuak beheko rolekin bateratzea izango da:

Arg0: Agent
Arg1: Asset
Arg2: theme
Arg3: recipient

- **Arazoak ordainak aukeratzean**

Lan honetan aurkitzen dugun zailtasunik handienetariko bat euskarazko aditzari ingelesezko zein baliokide esleitu behar diogun aukeratzea da, zaila baita hain desberdinak diren bi hizkuntza parekatzea.

Esaterako, "aurkitu" aditzaren kasuan, 2 adiera edo balio semantiko bereizten ditugu:

- entitate baten _kokapena
- entitate baten _egoera

Ingelesezko ordainen artean "find" daukagu eta argi dago lehen adiera edo balio semantikoarentzat ezin hobeto datorrela ordain hau, baina zer gertatzen da bigarren adierarekin?

Ikus ditzagun bi adibide:

- Zer moduz aurkitu zara proban zehar?
- Jokalaria egoera berezian aurkitzen baitzen.

Bi adibide hauetan badirudi ingelesez egokiago litzatekeela "to feel" edo "to be" jartzea, baina orduan, gehiegi aldenduko ginateke gure hasierako aditzetik (aurkitu / find). Kontua da horrelako testuinguruetan "aurkitu" aditza erabiltzea gaztelerazko "no se encuentra bien" horren kalkoa dela; beraz, ingelesez ere aditzaren itzulpen literala mantentzea erabaki dugu.

- **Zer egin Verbnet-ek argumentu berari bi rol desberdin esleitzen dizkionenean?**

Ikusi aditzaren kasuan gertatu zaigu hau. EADBN *ikusi* aditzak bi argumentu ditu eta argumentu horietako bakoitzari rol bat esleitzen zaio:

Arg0: Esperimentatzailea
Arg1: Gaia

Baina PropBank eta Verbnet-era jotzerakoan, argumentu horientzat bi rol ematen dituztela ikusten dugu:

ID: see.01 NAME: view VERBNET: 29.2 30.1
ROLE(0): viewer VNTHETA (29.2): **Agent** VNTHETA (30.1): **Experiencer**
ROLE(1): thing viewed VNTHETA (29.2): **Theme** VNTHETA (30.1): **Stimulus**

Hau da, Arg0-ri "agent" eta "experiencer" jartzen dizkio eta Arg1-i "theme" eta "stimulus".

Kasu honetan, EADBN oinarritzea erabaki dugu eta beraz, horrekin bat datozen Verbnet-eko rolak jartzea, hau da, “agent” (EADBN ergatibo guztiak “esperimentatzaile” dira eta ez dago agenterik) eta “theme”. Honela geratuko litzateke:

Arg0: Agent, esperimentatzailea
Arg1: theme, gaia

- **Eremuren batean ez dakigunean zein balio jarri** edo berez ez badagokio inolako baliorik marratxoa (-) jarriko dugu.
- **Aditz arazleetan** sintagma ergatiboa **Arg1** da. Horrek esan nahi du kasu hauetan Arg0, Arg1, eta abar ez direla ohiko modura agertuko.

Adib.: Txominek Patxiri esanarazi dio.

Esaldi honetan, Arg1 “Txominek” litzateke eta Arg0 “Patxiri”. Eta biak “Agent” lirateke.

- **Inpertsoneletan** (adib. “beti hori esaten da”), Arg1 izango dugu (eta ez arg0). Pertsoneletan, hau da, iragankorretan gehienetan, arg0 (sintagma ergatiboa) eta arg1 (sintagma absolutiboa) izango ditugu.
- **Hautapen-murriztapenei** dagokienez, elementu baten hautapen-murriztapena argia bada, jarri egingo dugu.

Adib.: Idazkariak esan dio

Esaldi honetan, *idazkaria* [+giz] da.

Zalantzak ditugunean, edo ez jarri ezer (“-“) edo zer edo zer orokorra jarri ([-biz]).

Zenbait kasutan, “kokapena”z ari garenean, esaterako, interesgarria da kokapen hori biziduna, bizigabea, konkretua... edo zer den jakitea. Horrelakoetan, ahal dela, hautapen-murriztapena jarri egingo dugu.

- **Ohar berriak**: zenbait aditzen analisisan, jarraian beltzago nabarmendu eta zerrendatu ditugun oharretako bat edo batzuk adierazi ditugu. Oharra adierazteaz gain, oharraren ondotik zuriunea utzi, eta parentesi artean aztergai dugun aditza zein den zehaztu behar da.

Adib.: Egoera zein den ikusten joango gara.

Oharra: aditz-perifraasi aspektuala (joan)

Bi ohar batera jarri behar ditugunean, eslaxa erabiliko dugu bi aldetan zuriunea utziz eta ohar bakoitzaren ondotik aztergai dugun aditza adieraziz.

Adib.: Desarmaa aurrera badoa...

Oharra: d / aditz-esapidea (joan)

Hona hemen oharren zerrenda:

- **aditz-esapidea (aztergai dugun aditza):** *nesketara joan, usotara joan da*. Arg_info ez bete eta ez ezabatu, eta gorde OSOA karpetan. Lasai, hau oso subjektiboa da-eta.
- **aditz-perifraasi aspektuala (aztergai dugun aditza):** *egoera zein den [ikusten joango gara], [hasiz joan zen]*. Arg_info ez bete eta ez ezabatu, eta gorde OSOA karpetan.
- **argumenturik gabea (aztergai dugun aditza):** Zenbaitetan aditzak ez du argumentu-egiturarik aztertzen ari garen esaldian eta, beraz, ezin diogu argumentu edo rolik esleitu. Horrelakoetan, hutsik utziko dugu eta “osoa” karpetan gordeko. Horretaz gain, oharren eremuan “argumenturik gabea” oharra* jarriko dugu. Adibidez: *ikusten dugunez / joan den astean*.

*Ohar hau 2009-10-20tik aurrerako analisietan txertatu dugu; beraz, data honen aurreko aditzetako zenbait analisitan oharra falta daiteke. Data hori baino lehenago aztertutako aditzak dira: esan, joan, atera, jokatu, ahaztu, konturatu, eman (Ainararen fitxategiak), entzun, hil, aldatu, ikusi eta lortu.

- **balio berria:** ikusi 7.3. ataleko lehen puntuan zer diogun.
- **ordain berria:** ikusi 7.3. ataleko bigarren puntuan zer diogun.

Jarraian datozen ohar hauen ondotik ez da aztergai dugun aditza adieraziko; hau da, oharra baino ez da adieraziko:

- **d: dependentziak gaizki** daudela iruditzen bazaigu, aldatu egingo ditugu*. Hori adierazteko, oharretan “d” idatziko dugu. Hala ere, EPEC-DEPen emandako irizpideak jarraitzen ez dituztenak bakarrik aldatuko ditugu. Adibidez, *behar izan, nahi izan* eta horrelako aditzekin, erabakia izan zen horiekin batera agertzen zen aditza mendekotzat hartzea (“egin behar da”), edozein delarik ere ordena. Aldiz, “Liburuak ekarri nahi ditu” moduko esaldietan “ekarri”ren ezker aldean dauden elementuek duten lotura sintaktikoa (gunea) errespetatu egingo dugu. Horrelako kasu askotan aditzetako bat (“ekarri” kasu honetan) ezer gabe geratzen zaigu. Hori bere horretan utziko dugu.

*Gaizki etiketatuta dauden dependentziak aldatuko ditugu baldin eta lan handia eskatzen ez badute; alegia, dependentzia-zuhaitz osoa aldatu behar bada eta mementoz ez zuzentzea erabakitzen bada, esaldi horiek “zalantzazko karpetan” gordeko ditugu.

- **d_estilo zuzena:** ikusi zer diogun 7.1 ataleko hamaseigarren puntuan.
- **erabilera desegokia:** Adibideren batean arauetatik urruntzen den erabilerearen bat topatzen badugu, etiketatzen saiatuko gara, baina oharretan “erabilera desegokia” jarriko dugu. Adibidez, *erruletara jokatu* agertu zaigu eta badakigu erabilera desegokia edo okerra dela, *erruletan jokatu* beharko lukeelako, beraz, *erruletara* horri dagokion rola jarriko diogu, kasu honetan “jarduera” eta oharren eremuan “erabilera desegokia” iruzkina jarriko dugu.

- Zenbait esaldi, **estilo zuzena dela eta, ez dira sintaktikoki etiketatu**. Rolak etiketatzerakoan erabaki dugu horiek lantzea eta *arg_info* egiturako hirugarren eremuan puntuazio-ikurra jartzea (gunearekin lotura egiten duen elementu gisa). Kontuan izan behar da horrelako asko AbarHitzek aparteko esaldi gisa tratatzen dituela (esaldi-mugak horrelaxe definituta ditugulako); beraz, behin landuta gehienak “osorik” karpetan sartzekoak izango dira. Estilo zuzenean askotan komatxoak eta koma aldi berean ageri dira; horrelakoetan gune gisa komatxoak hartzea erabaki dugu.

Zenbaitetan estilo zuzena landuta dator dependentzietan (irizpideak aldatu egin zirelako momentu jakin batean), eta analisi okerra ematen da. Horrelakoetan, oharretan “d_estilo zuzena” jarriko dugu eta dependentzia-analisia ezabatu egingo dugu. Marka horren bidez horiek gerora “Estilo zuzena” karpetara pasa ahal izango dira.

7.2. Irizpide partikularrak eta adibideak

- **“Horretaz gain”** -> argM ADV
- **ArgM-etan noiz adierazi behar da ADV?** Hitza adverbio kategoriakoa demean ADV erabakiko da, eta gainerako kasuetan dagokion ezaugarriaren arabera: TMP, MNR...
- **“Oporretara joan”** eta horrelakoak argM: PRP (EADB rolean “-“).
- **“Ez da inoiz etorriko”**. “Ez”: ArgM:NEG, “inoiz” ArgM:ADV
- **“Nik neuk”**: dependentziei jarraitu (bi subjektu badaude, bi *arg_info* berdin; bestela, bakarra)
- **Adjuntuak** direnean, Aldezabalek bere tesi-lanean (2004) zehazten duen rolik ez dugu jarriko (marratxo erabiliko dugu)
- **Koordinazioan** zilegi da bi Arg0 edo Arg1 edo dena delakoak egotea.
- **Bokatiboak ArgM, DIS, -, - markatuko ditugu PropBank-eko gidalerroei jarraiki (ik. A Eranskinean 3.10 puntua). Adibidea: *Ama, eraman nazazu zurekin.***

Ama: ArgM, DIS, -, -

- **Perpau kontzesiboak, baldintzazko perpauak:** ArgM gisa etiketatuko ditugu eta ondorengo eremuak hutsik utziko ditugu (ArgM, -, -, -).

Adibidea: *ikusi nuen, nahiz eta ez nuen agurtu* (asmatua)

arg_info (see_01, ikusi, agurtu, ArgM, -, -, -)

Adibidea: Hala ez balitz, eskutitzok nirea bezain garai ero eta hutsalean agertuko balira, orduan zera eskatzen diot kutxa aurkitu duenari: bere lekuan utzi dezala berriz kutxatxo.

arg_info (ask_02, eskatzen, punt_koma, ArgM, -, -, -)

- **Adibideak**

Directionals (DIR)

arg_info(see_01, ikusten-[w59], derbirako-[w63], argM, DIR, -, -)

Temporal markers (TMP)

arg_info (see_01, ikusiko-[w297], Hortik aurrera-[pos7], argM, TMP, -, -)

ncpred-ak (*Jontxu alai ikustean...*)

arg_info (see_01, ikustean, alai, argM, MNR, -, -)

7.3. Propbank-ekiko ezadostasunak

- **Zer egin aditz batek PropBank-eko aditz bat baino gehiago dituenean lotuta?**

Lehenik eta behin, konprobatu behar dugu ingelesezko aditz horiei dagozkien rolset-zenbakia, rolak eta argumentuak berdinak ala desberdinak diren.

Berdinak badira, ez dago inolako arazorik: dagozkionak jarri eta kito (euskal aditzaren eta ingelesezkoaren arteko lotura egina dago zerrendan).

Gerta daiteke rolak eta argumentuak berdinak izanik, rolset-zenbakia desberdina izatea. Horrelakoetan, gorago azaldu dugunaren ildotik, bi aditzak zehaztuko dira lehenengo eremuan (adibide asmatua: take_04/bring_01). Rolak berdinak, baina argumentu-kopurua eta -zenbakiak bat ez datozenean, orduan desberdintzat hartuko ditugu, eta segidako paragrafoan adierazten duguna egingo dugu.

Desberdinak badira, aztertu beharko dugu zein den gure ustez egokiena. Horretarako oso kontuan izan beharko da ingelesezko aditzaren eta euskarazkoaren jokaera sintaktikoa, argumentu-kopuruari eta alternantziei dagokionez. Ezaugarri hauek antzekoen dituen aditza hautatu beharko da. Biak balizkoak dira eta beraz lehenengo eremuan zehaztu egin beharko da.

Zeregin honetan, *Ancora* corpora kontsultatzea ere lagungarri izan daiteke (<http://clic.ub.edu/ancora/>).

- **Zer egin aditz batek ez duenean loturarik inongo PropBank aditzekin edo ez gatozenean bat dituen loturekin?**

Horrelakoetan, kontsulta-prozesua gehiago luzatzen da; izan ere, lehenik eta behin, ingelesezko ordaina zein izan daitekeen pentsatu behar dugu (hori Wordreference-n eta Elhuyar-en on-line hiztegian begiratzuz atera daiteke: www.wordreference.com, <http://www.elhuyar.org/hizkuntza-zerbitzuak/EU/Hiztegi-kontsulta>), eta gero ordain hori/horiek PropBank-eko direktorioan begiratu. Hortik gure ustez egokiena izan daitekeen aditzaren rolset-zenbakia (01, 02...) aukeratuko dugu lehenengo eremurako, zenbakiarekin batera aditza zehaztuz (adib. have_03). Aditz bat baino gehiago jar dezakegu eslaxarekin bereizita (adib. have_03/own_01).

- PropBanken badira **rol batzuk ez direnak gure ustez argi bereizten**. Adibidez, **Location** eta **LOC**. Gure erabakia hauxe izan da: elementua argumentu izaerakoa bada (Arg1, Arg2...), “location” erabiliko dugu. Adjuntua bada (ArgM), LOC. Hots, hiru letrakoak adjuntuentzat utziko ditugu eta besteak argumentuentzako.

- **Ordain berria:** Ez dugunean PropBank balio egokirik topatzen, oharretan *ordain berria* jarriko dugu eta aditz horren adiera arruntenarekin lotuko dugu (normalean). Adibidez, “eskatu” aditzean ez dugu PropBank-ek ematen dituen ordainen artean egokirik aurkitu (*claim* eta *order*) eta iruditu zaigu kasu gehienetan ordain egokia *ask_02* dela; beraz, hau erabakita, oharretan *ordain berria* jarri dugu.

C eranskinean adierazi ditugu aditzaren ordain berriak.

- **Balio berria:** Ingelesezko aditzaren argumentu-egitura eta EADBarena erabat bat ez datozenean, oharretan *balio berria* jarriko dugu. Hots, Aldezabal-en tesi-lanean (2004) ageri den informazioa osatu edota aldatu beharrean aurkitzen garenean gertatuko zaigu hau.

Adibidez, aurreko atalean aipatu dugu “eskatu” aditzaren ordain berria den *Ask_02*-k dituen argumentuak eta rolak begiratu ditugu PropBank eta VerbNet-en eta 3 argumentu dituela ikusi dugu:

Arg0: Agent
Arg1: Theme (proposition)
Arg2: Patient

EADBN bi argumentu baino ez zaizkio esleitzen *eskatu* aditzari:

Arg0: esperimantatzailea
Arg1: gaia

Aipatzen da DAT ager daitekeela, baina ez da kasu azpikategorizatuen artean sartzen. *Ask_02* aditzak, ordea, sartu egiten du kasu azpikategorizatuen artean eta guk PropBank-en ereduari jarraitzea erabaki dugu; beraz, DAT agertzen zaigunean Arg2 gisa etiketatuko dugu:

Arg2: patient, abiapuntua.

Adib.: Nemesiok, joan baino lehen, Alejandro adiskideari eskatzen dio, zaindu dezala bere “x” zakurra.

arg_info (ask_02, eskatzen, Nemesiok, arg0, Agent, esperimantatzailea, +giz.)
arg_info (ask_02, eskatzen, lehen, argM, TMP, -, -)
arg_info (ask_02, eskatzen, adiskideari, arg2, patient, abiapuntua, +giz.)
arg_info (ask_02, eskatzen, zaindu, arg1, Theme, gaia, -biz.)

Hau dela eta, EADBN dagoen egiturari balio berri bat erantsi diogu, DAT elementua kasu azpikategorizatua gisa eskatzen duena, hain zuzen ere, eta beraz, **oharretan balio berria** jarriko dugu.

Baina ez dugu kasu guztietan berdin jokatu eta adibidez, *lortu* aditzaren kasuan, PropBank-ek Arg2 gisa ematen zuena, guretzat ArgM izango dela erabaki dugu. *Lortu* aditzak bi argumentu ditu EADBN:

Arg0: esperimentatzailea
Arg1: gaia

Bere ingelesezko ordaina “obtain” izango dela erabaki dugu, baina aditz honek hiru argumentu ditu PropBanken:

Arg0: Agent
Arg1: Theme
Arg2: source

Gure ustez, Arg2 hau ez da kasu azpikategorizatua euskaraz eta beraz, DAT elementua agertzen zaigunean, ArgM jartzea erabaki dugu. Kasu honetan ez dugu oharretan *balio berria* jarri behar ez garelako EADBEk ematen duen egituratik aldentzen.


- *Joan* moduko aditzetan guk erabaki dugu subjektua **arg0** izatea. PropBanken arg1 gisa lantzen dute. Gure ustez gure hautua gehiago egokitzen zaio eurak proposatutako honako irizpideari: elementu bat biak izan badaiteke –arg0 eta arg1– aldi berean agentea eta ekintzaren jasalea delako, arg0 hautatuko da.
- Rol berri baten falta sumatu dugu: **path: bidea**

8. Interfazeari begira nahi genituzkeen hobekuntzak


Rol sematikoak etiketatzeko erabili dugun tresna etiketatze sintaktikorako erabilitako Abarhitz bera da. Tresna honi buruzko informazio zehatza nahi izanez gero, jo beza irakurleak lan honetara: (Díaz de Ilarraza *et al.*, 2004). Hemen, batetik interfazeari dagozkion irudiak txertatuko ditugu, eta bestetik, interfazea hobetzeko proposamenak zerrendatuko ditugu.

8.1. Interfazeari dagozkion irudiak


- lehen leihu honetan, etiketatu nahi dugun aditza adierazi behar da eskuineko “Idatzi aditza” atalean.



- “joan aditzari dagokion fitxategietako bat zabaldu ondoren, ezkerreko aldean aztergai den esaldiaren analisi automatikoa dago, eskuz gainbegiratua izan dadin.



c) Aurreko irudiarekin alderatuta, honetan eskuineko aldean ProBank/Verbnet datu-basetako informazioa da ageri dena.



8.2. Interfazea hobetzeko proposamenak

Hobekuntza hauek dira proposatu nahi direnak:

- Esaldien analisia zuhaitz edo diagrama modura ikusterakoan, rola eta gainontzeko informazio guztia ere ikus dadila.
- Lantzen ari garen aditza (burua aditz hori denean, alegia) nolabait markatzea, gu zuzenean joan ahal izateko landu behar den puntura.
- Behin betegabeko eremu bat osatutakoan, eremuaren deskribapena automatikoki desagertzea. Hau horrela da dagoeneko; gakoa da juxtu aurreko zeinua (koma edo parentesia) kentzea eta berriz idaztea.
- EADBko analisiak modu berean emanak etortzea: arg_info etiketa automatikoki osatuta datorrenean, osagai bat baino gehiagoko balioa azpimarrarekin dator (esaterako, *gai_ukitua*); etiketa hori geuk osatzen dugunean, aldiz, aukeretan azpimarrarik gabe dator balio hori (gai ukitua).
- Arg_info etiketatako informazioa baliatu behar izanez gero, kontuan izan etiketaren lehen eremuan aditz bat baino gehiago adierazi ditugunean ez dugula beti PropBank-eko hurrenkera jarraitu. Adibidez, amaitu aditzean, batzuetan (end_01/finish_01) idatzi dugu, eta beste batzuetan (finish_01/end_finish). 2009ko azaroaren 5a bitarteko aditzen analisisetan gerta daiteke hau; aurrerantzean PropBank-eko hurrenkera jarraitzea erabaki dugu. Data hori baino lehenago aztertutako aditzak dira: esan, joan, atera, jokatu, ahaztu, konturatu, eman (Ainararen fitxategiak), entzun, hil, aldatu, ikusi, lortu, eskatu, amaitu eta asmatu.

Erreferentziak

